

KOMUNIKATUA

2.TXANDAKO ZOZKETAREN BEHARRA

Jakinarazten dugu zenbakitze arazo bat gertatu dela udalekuetako parte-hartzaileen zerrendetan, eta horrek eragina izan du 2. txandaren antolaketan.

Egoera zuzentzeko, 2. txandarako zozketa egin beharko da.

Zozketa hau egingo da 1. eta 2. txandan izena eman dutenen artean, baina soilik 1. txandan plaza lortu duten pertsonen artean.

Bestalde, 1. eta 2. txandan izena eman dutenek eta 1. txandan plaza eskuratu ez dutenek ziurtatua dute 2. txandan parte hartzea, beraz, ez dute zozketan parte hartu beharko. Era berean 2.txandan soilik izena eman dutenak ere zuzenean onartuak izan dira.

Barkamena eskatzen dugu sor daitezkeen eragozpenengatik eta eskertzen dugu zuen ulermena.

Informazio gehiagorako, jar zaitezte gurekin harremanetan ohiko bideen bidez.

Eskerrik asko eta berriz ere sentitzen dugu sortutako nahastea.

Xaguxarreko Zuzendaritza Taldea